

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5451

800/2024 EBAZPENA, urriaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez Teresa Begoña Ibisate Beneitez andrea izendatzen baita Administrazio Taldeko Buruaren lanpostua betetzeko Ospitaleko Koordinaziorako Zuzendariordeztzan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan.

Aztertu da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren Ospitaleko Koordinaziorako Zuzendariordeztzako Administrazio Taldeko Buruaren lanpostua betetzeko deialdia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren irailaren 16ko 637/2024 Ebazpenaren bidez egin zena (urriaren 3ko EHAA, 193 zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak aurkeztutako merezimenduen arabera baloratu ere. Hala, aurkeztutako dokumentazioa kontuan izanik, balorazio-batzordearen ustez, Teresa Begoña Ibisate Beneitez andrea aproposa da deialdiko lanposturako eta bertan jarduteko trebakuntza egokia du.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Teresa Begoña Ibisate Beneitez andrea izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren Ospitaleko Koordinaziorako Zuzendariordeztzako Administrazio Taldeko Buruaren lanpostua betetzeko.

Bigarrena.– Izendapen honek 2024ko azaroaren 5etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 30a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.